KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**Z I U R T A T Z E N D O T:**

2013ko apirilaren 22an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

## 4.- **UDAL AZOKAKO MERKATARITZA DIAGNOSTIKOAREN IKERKETEA EGITEKO ENPRESEA ESLEITZEA.**

### Xedea

Udal Azokako merkataritza diagnostikoaren ikerketea egiteko enpresea esleitzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2013ko urtarrilak 22an Merkataritza, Sustapen eta Turismoko batzorde informatiboan, baldintza administratibo eta teknikoak onartu ziran eta esleipen jardunbideari hasikerea emon jakon.

Bigarrena: LKS, SIADECO eta EHU/UPV entitateei kontratazinoan parte hartzeko gonbitea bialdu jaken, 2013ko martxoaren 19an.

Hirugarrena: *LKS, ETA SIADECO* enpresek, euren eskaintzea bialdu dabe.

### Argudioak

Lehenengoa: Hautagai guztiek **A** kartazala **"Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena"** aurkeztu dabe eskatutako dokumentuakaz.

Bigarrena: **B** kartazala **"Forrmula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erispideen dokumentazinoa"** baloratzen da:

| **ENPRESA** | Proposamen teknikoa Lan-metodologia (40 puntu) | Proposamen teknikoa Parte-hartze eredua (25 puntu) | Proposamen teknikoa Hobekuntzak (10 puntu) | **GUZTIRA** |
|---|---|---|---|---|
| **LKS** | 30 | 20 | 4 | 54 |
| **SIADECO** | 35 | 22 | 8 | 65 |

Hirugarrena: **C** kartazaleko **PROPOSAMEN EKONOMIKOA**k eta euren puntuazinoa hurrengokoa da:

| ENPRESEA | Proposamen ekonomikoa BEZ KANPO | PUNTUAZINOA (25 puntu) |
|---|---|---|
| LKS | 22.900 € | 1,19 |
| SIADECO | 22.250 € | 25 |

Laugarrena: B kartazaleko puntuazinoa gehi C kartazaleko puntuazinoa honako hau da:

| ENPRESEA | B kartazala Proposamen teknikoa | C kartazala Proposamen ekonomikoa | **GUZTIRA** |
|---|---|---|---|
| LKS | 54 | 1,19 | 55,19 |
| SIADECO | 65 | 25 | 90 |

Bosgarrena: Errekerimentua egin ondoren, behin betiko bermea aurkeztu dau.

**Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: SIADECO enpreseari, “UDAL AZOKAKO MERKATARITZA DIAGNOSTIKOAREN IKERKETEA” garatzeko kontratua 22.250€ + BEZ (4.672,50€) esleitzea. Guztira, 26.922,50 euroko esleipena izango da.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deutsut, behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko apirilaren 24an.

ONETSIA
ALKATEA